

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**LEHENDAKARITZA**

*Azterlan eta Lege Araubide  
Zuzendaritza  
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

**PRESIDENCIA**

*Dirección de Estudios y  
Régimen Jurídico  
Gabinete de Prospección Sociológica*

Sindikalgintzari buruzko iritziak  
*Opiniones sobre sindicalismo*

2008ko urtarrila  
*Enero 2008*

[http://www.euskadi.net/estudios\\_sociologicos](http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos)

# Aurkibidea / Índice

<b>SARRERA / INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>1</b>		
<b>LABURPENA / SÍNTESIS</b> .....	<b>4</b>		
<b>A – SINDIKALGINTZARI BURUZKO IRITZI OROKORRAK / OPINIONES GENERALES SOBRE EL SINDICALISMO</b> .....	<b>9</b>		
• <b>Erakundeekiko konfiantza</b> / <i>Confianza en instituciones</i> .....	10		
• <b>Sindikatu</b> ei buruzko iritzi orokorrak / <i>Opiniones generales respecto a los sindicatos</i> .....	14		
• <b>Sindikatu</b> ekiko begikotasuna / <i>Simpatía por los sindicatos</i> .....	18		
• <b>Sindikatu</b> en bilakaera / <i>Evolución de los sindicatos</i> .....	20		
• <b>Buruzagi</b> sindikalen ezagutza eta balorazioa / <i>Conocimiento y valoración de líderes sindicales</i> .....	23		
<b>B – LAN BALDINTZAK / CONDICIONES DE TRABAJO</b> .....	<b>26</b>		
• <b>Lan kontratu mota</b> / <i>Tipo de contrato de trabajo</i> .....	27		
• <b>Lanaldia</b> / <i>Jornada laboral</i> .....	28		
• <b>Asteko lan orduak</b> / <i>Horas semanales laborales</i> .....	29		
• <b>Ordainsari mota</b> / <i>Tipo de remuneración</i> .....	30		
• <b>Soldata maila</b> / <i>Nivel salarial</i> .....	31		
• <b>Lanarekiko poztasuna</b> / <i>Satisfacción con el trabajo</i> .....	33		
<b>C – LAN HARREMANAK LANTOKIAN / RELACIONES LABORALES EN LA EMPRESA</b> .....	<b>34</b>		
• <b>Langileen ordezkari</b> tzarik enpresan dagoen ala ez / <i>Existencia de representación sindical en la empresa</i> .....	35		
• <b>Lan-hitzarmena eta berarekiko poztasuna</b> / <i>Convenio colectivo y satisfacción</i> .....	36		
• <b>Lan harremanak lantokian</b> / <i>Relaciones laborales en el lugar de trabajo</i> .....	38		
• <b>Langileen arteko bilerak eta parte-hartze maila</b> / <i>Reuniones entre trabajadores/as y nivel de participación</i> .....	40		
• <b>Ordezkar</b> i sindikalekin izandako harremanak / <i>Relaciones con las y los representantes sindicales</i> .....	43		
		• <b>Hauteskunde</b> sindikaletako boto oroimena / <i>Recuerdo de voto en elecciones sindicales</i> .....	44
		<b>D – SINDIKATU ETA ENPRESARIEN ARTEKO HARREMANAK / RELACIONES ENTRE SINDICATOS Y EMPRESARIOS</b> .....	<b>46</b>
		• <b>Sindikatu eta enpresari</b> en arteko negoziazio gaiak / <i>Temas de negociación entre sindicatos y empresarios/as</i> .....	47
		• <b>Sindikatu</b> en lehentasunezko estrategia / <i>Estrategia prioritaria de los sindicatos</i> .....	50
		• <b>Langileentzako itun mota komenigarriak</b> / <i>Tipos de pacto convenientes para las y los trabajadores</i> .....	51
		• <b>Sindikatu</b> en arteko batasuna / <i>Unidad sindical</i> .....	52
		<b>E – AFILIAZIO SINDIKALA ETA AFILIATUEN IRITZIAK / AFILIACIÓN SINDICAL Y OPINIONES DE LA AFILIACIÓN...</b>	<b>55</b>
		• <b>Soldatapeko langileen afiliazio</b> sindikala / <i>Afiliación sindical de las y los trabajadores asalariados</i> .....	56
		• <b>Sindikatu</b> en araberako afiliazioa / <i>Afiliación por sindicatos</i> .....	60
		• <b>Antzinasuna</b> sindikatuan / <i>Antigüedad en el sindicato</i> .....	61
		• <b>Sindikatu</b> etan afiliatzeko arrazoiak / <i>Razones para afiliarse a los sindicatos</i> .....	62
		• <b>Sindikatu</b> aren barne funtzionamenduarekiko poztasuna / <i>Satisfacción con el funcionamiento interno del sindicato</i> .....	63
		<b>F – AFILIATU GABEEN IRITZIAK / OPINIONES DE LAS Y LOS NO AFILIADOS</b> .....	<b>64</b>
		• <b>Sindikatu</b> etan ez afiliatzeko arrazoiak / <i>Razones para no afiliarse a los sindicatos</i> .....	65
		• <b>Sindikatu</b> ekiko begikotasuna afiliatu gabekoen artean / <i>Simpatía sindical de las y los no afiliados</i> .....	68
		<b>ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA</b> .....	<b>70</b>

## Sarrera / Introducción

## Helburuak eta Informazioaren Iturria / Objetivos y origen de la Información

Ikerketa honen **helburua** EAEko herritarrok sindikalgintzari buruz ditugun iritzi orokorrak ezagutzea da; eta zehazkiago, soldatapeko langileek zein lan baldintza dituzten, enpresako lan harremanak eta sindikatu eta enpresarien arteko harremanak nolakoak diren, afiliazio sindikalaren maila eta sindikatuetan afiliaturik daudenen eta ez daudenen jarrerak nolakoak diren.

Europar Batasuneko herrialdeekiko ditugun antzekotasun eta desberdintasunak ere aurkeztuko ditugu daturik daukagun kasu bakanetan eta denboran zehar iritzietan nola aldatzen garen ere azalduko dugu Prospekzio Soziologikoen Kabineteak aurretik jasotako daturik dagoenean.

Ikuspegi deskribatzaile, ebolutibo eta konparatibo honek gidatuko ditu ondoko orriok.

Lan honetako emaitzak 2007ko urrian Euskal Soziometroa bildumaren 35. ikerketan erabilitako galdesortan berariaz sartutako galdera multzo batetik datoz.

El **objetivo** de este estudio es conocer las opiniones que la población de la CAPV tiene sobre el sindicalismo en general; y más exactamente, cuáles son las condiciones de trabajo de las y los trabajadores asalariados, cómo son las relaciones laborales en la empresa y las relaciones entre sindicatos y empresarios, el nivel de afiliación sindical y cómo son las actitudes de las y los afiliados a sindicatos y de las y los no afiliados.

También queremos conocer las similitudes y diferencias que presentamos respecto a los distintos países de la Unión Europea en los casos en que tengamos datos de comparación y cómo van evolucionando nuestras opiniones a lo largo de los años cuando dispongamos de datos previamente recogidos por el Gabinete de Prospección Sociológica.

Este enfoque descriptivo, evolutivo y comparativo es el que va a guiar las páginas que siguen.

Los resultados de este trabajo proceden de un bloque de preguntas ad hoc incluidas en el cuestionario del estudio nº 35 de la serie de Sociómetros Vascos, realizado en octubre de 2007.

## Kolektibokako azterketa / Análisis por colectivos

Inkestaren datuak biztanleria guztirako ez ezik segmentazio soziodemografiko eta soziopolitikoaren arabera ere aztertu dira. Ondokoak dira aldagai soziodemografiko eta jarrerazko horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.*
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa.*
- Adin taldeak: *18-29, 30-45 eta 46-64.*
- Begikotasun politikoa (Eusko Legebiltzarrean daudenetatik, begikotasunik handiena eragiten dion partidua): *EAJ/PNV, PSE-EE, PP, EHAK, EA, EB, Aralar, bat ere ez, denak berdin, ed/ee.*
- Soldatapekoa: *bai eta ez.*
- Hauteskunde sindikaletako boto oroimena: *ELA, LAB, CCOO, UGT, beste bat, ez zuen botoa eman eta ed/ee.*

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a **segmentaciones sociodemográficas y sociopolíticas**. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.*
- Sexo: *varón y mujer.*
- Grupos de edad: *18-29, 30-45 y 46-64.*
- Simpatía política (partido del Parlamento Vasco por el que siente más simpatía): *EAJ/PNV, PSE-EE, PP, EHAK, EA, EB, Aralar, ninguno, todos por igual, ns/nc*
- Asalariado: *sí y no.*
- Recuerdo de voto en elecciones sindicales: *ELA/STV, LAB, CCOO, UGT, otro, no votó y ns/nc.*

Soldatapeko langileei buruzko ataletan ondorengo aldagaiak ere kontuan hartu dira:

- Afiliatua (sindikaturen batean afiliatua dagoen): *bai* eta *ez*.
- Antzinakotasuna enpresan: *<3 urte, 3-10 urte, 11-25 urte* eta *>25 urte*.
- Enpresaren tamaina (langile kopuruaren arabera): *mikroenpresa: 2tik 9ra, enpresa txikia: 10etik 49ra, enpresa ertaina: 50etik 249ra* eta *enpresa handia: 250 edo gehiago*.
- Lan kontratu mota: *mugagabea, aldi baterakoa* eta *kontraturik gabe ari naiz lanean*.

Aurrekoez gain, ondoko aldagaiak ere sartu ditugu afiliazio sindikalari buruzko galderan:

- Une honetan egiten duzun langintza edo profesioa (1994ko Lanbideen Sailkapen Nazionala jarraituz): *enpresetako eta herri-administrazioetako zuzendaritza; teknikari eta profesional zientifiko intelektualak; laguntzako teknikariak eta profesionalak; administrariak; jatetxeetako, gizabanako zerbitzuetako, segurtasun eta babes zerbitzuetako langileak, merkataritzako saltzaileak eta berdinetsitakoak; nekazaritzako eta arrantzako langile gaituak; eskulangileak, eta manufaktura-industrietako eta eraikuntzako langile gaituak, makinatako eragileak izan ezik; instalazioetako eta makinatako eragileak, muntatzaileak; langile ez-gaituak eta ed/ee.*
- Lan egiten duzun enpresa edo erakundearen jardura ekonomiko nagusia (1993ko Jardura Sektoreen Sailkapen Nazionala jarraituz): *nekazaritza eta arrantza; industria; eraikuntza; merkataritza eta konponketa; ostalaritza; garraioa eta komunikazioa; bitartekaritza finantzieroa; onibar-jarduerak, enpresentzako zerbitzuak; herri-administrazioa, defentsa, nahitaezko gizarte segurantzak, lurraldez kanpoko jarduerak; hezkuntza; osasun eta albaitaritza jarduerak, gizarte-zerbitzuak; bestelako gizarte jarduerak eta erkidegoarentzako zerbitzuak; etxeetako jarduerak etxeko langileen enplegatzaile gisa eta ed/ee.*
- Enpresa mota: *administrazio publikoa* eta *enpresa pribatua*.

Bestalde, afiliazio sindikala eta afiliatuen iritziak atalean –E atala–, sindikaturen batean afiliaturik dauden soldatapeko langileen guztirako datuak soilik aurkezten ditugu, laginaren tamaina ez delako kolektiboak bereiztu ahal izateko adinakoa.

En los apartados referentes a las y los trabajadores asalariados también se incluyen las siguientes variables:

- Afiliado (afiliado/a a algún sindicato):, *sí* y *no*.
- Antigüedad en la empresa: *<3 años, 3-10 años, 11-25 años* y *>25 años*.
- Tamaño de la empresa (según el nº de trabajadores): *microempresa: de 2 a 9, empresa pequeña: de 10 a 49, empresa mediana: de 50 a 249* y *empresa grande: más de 250*.
- Tipo de contrato: *indefinido, temporal/eventual* o *trabaja sin contrato*.

Además de las anteriores, se incluyen las siguientes variables diferenciadoras en la cuestión referente a la afiliación sindical:

- Ocupación o profesión que desempeña en su empleo principal (siguiendo la Clasificación Nacional de Ocupaciones de 1994): *dirección de las empresas y de las administraciones públicas; técnicos y profesionales científicos e intelectuales; técnicos y profesionales de apoyo; empleados de tipo administrativo; trabajadores de los servicios de restauración, personales, de protección y seguridad, dependientes de comercio y asimilados; trabajadores cualificados en agricultura y pesca; artesanos, trabajadores cualificados de la industria manufacturera y de la construcción, excepto operadores de maquinaria; operadores de instalaciones y maquinaria, montadores; trabajadores no cualificados y ns-nc.*
- Actividad económica de la empresa u organización en la que trabaja (siguiendo la Clasificación Nacional de Sectores de Actividad de 1993): *agricultura y pesca; industria; construcción; comercio y reparaciones; hostelería; transporte, almacenamiento y comunicaciones; intermediación financiera; actividades inmobiliarias, servicios empresariales; administración pública, defensa y seguridad social obligatoria, organizaciones extraterritoriales; educación; actividades sanitarias y veterinarias, servicios sociales; otras actividades sociales y servicios a la comunidad; hogares que emplean personal doméstico y ns-nc.*
- Tipo de empresa: *administración pública* y *empresa privada*.

Por otro lado, en el apartado de afiliación sindical y opiniones de la afiliación – apartado E–, se muestran únicamente los datos totales de las y los trabajadores asalariados afiliados a algún sindicato porque el tamaño de la muestra no es lo suficientemente grande para poder diferenciar los colectivos.

## Laburpena / Síntesis

### **Zein iritzi orokor ditugu sindikatueta eta buruzagi sindikalez?**

EAEko herritarren %43k konfiantza dute sindikatuengan -konfiantza hori Europar Batasuneko batezbestekoa baino apur bat handiago da-. Soldatapeko langileek, ez direnek baino konfiantza gehiago dute sindikatuengan. Edozelan, guztiek konfiantza handiena Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra eta Gobernu Kanpoko Erakundeetan dute.

Herritarren gehiengoa (%70 edo gehiago) sindikatuei buruzko ondoko iritziekin gehienbat ados dago: sindikatuak emakumeen berdintasunaren alde gehiago inplikatu behar dira, elkaturik lan egin behar dute, alderdi politikoei independenteak izan behar dira, arrazismoaren kontrako kanpainetan gehiago inplikatu behar dira eta sindikatuei esker langileek lan baldintzak hobetzea lortu dute. Halaber, erdia baino gehiagok uste dute azken urteetan, lan baldintzak defendatzeko gaitasuna galdu dutela. Iritzi hauekin soldatapeko langileek adostasun handiagoa adierazi dute soldatapeko ez direnek baino.

Aldiz, euskal herritarren herena eta erdia artean dago gehienbat ados ondokoekin: sindikatuak soilik soldatez eta lan baldintzez arduratzen dira, soilik euren afiliatuak defendatzen dituzte, sindikaturik gabe ezin da demokraziarik egon eta soilik langile finkoak defendatzen dituzte. Eta, hamarretik bi ados daude, baita, sindikatuek ez dutela ezertarako balio ustearekin. Sindikatuekiko iritzi kritikoago hauen inguruan ez dago desberdintasunik soldatapeko langileen eta gainontzekoen artean.

Euskadiko lau sindikatu nagusien galdetutakoan, biztanleriak ez dio bakar bati ere oniritzia eman (5 puntu, 0 eta 10 arteko eskalan). Hala ere, ELAk jaso du baloraziorik onena (4,4 punturekin), ondoren LAB eta CCOO (3,9rekin) datoz eta azkenik, UGT (3,7rekin). Nahiz eta soldatapeko langileek soldatapeko ez direnek baino hobeto baloratu dituzten, hauen artean ere ez du inork oniritzirik lortu. Gainera, azken bost urteetan lau sindikatuek beren jardura okertu egin dutela diotenak, hobetu egin dutela diotenak baino pixka bat gehiago dira; iritzi hau are hedatuago dago soldatapeko langileen artean, okerren CCOO eta UGT baloratu dituztelarik.

Bestalde, euskal herritarren artean buruzagi sindikal ezagunena UGTko Candido Mendez da (%52k ezagutzen dute) eta ezezagunena ere UGTkoa, Damaso Casado (%33). Alabaina, baloraziorik onenak ELAko Joxe Elorrietak eta LABeko Rafa Diezek jaso dituzte, nahiz eta ez duten herritarren oniritzirik jaso. Oro har, soldatapeko langileek gainerakoek baino gehiago ezagutzen dituzte buruzagi sindikalak eta sindikatu bakoitzaren boto emaleek euren sindikatueta buruzagiei oniritzia eman diete.

### **¿Qué opinamos sobre los sindicatos y los líderes sindicales?**

Un 43% de la ciudadanía de la CAPV confía en los sindicatos -esta confianza es ligeramente mayor que la media de la Unión Europea-. Las y los trabajadores asalariados tienen mayor confianza en ellos que quienes no lo son. En cualquier caso, las instituciones en las que más confían todos son el Gobierno Vasco, el Parlamento Vasco y las ONGs.

La mayoría de la ciudadanía (70% o más) está más bien de acuerdo con las siguientes opiniones respecto a los sindicatos: deben implicarse más en la promoción de la igualdad de las mujeres, deben trabajar unidos, deben ser independientes de los partidos políticos, deben implicarse más en las campañas contra el racismo y gracias a los sindicatos, los trabajadores han logrado una mejora de sus condiciones de trabajo. Asimismo, más de la mitad creen que en los últimos años, los sindicatos han perdido capacidad en la defensa de las condiciones de trabajo. Las y los trabajadores asalariados muestran un nivel de acuerdo mayor con estas opiniones que quienes no lo son.

En cambio, de un tercio a la mitad de la población vasca está más bien de acuerdo con lo siguiente: los sindicatos sólo se preocupan por los sueldos y las condiciones de trabajo, defienden sólo a sus afiliado/as, sin sindicatos no puede haber democracia y defienden sólo a las y los trabajadores hijos. Dos de cada diez, también están de acuerdo en que los sindicatos no sirven para nada. No hay diferencias entre las y los trabajadores asalariados y el resto respecto a este bloque de opiniones más críticas con los sindicatos.

Cuando se ha preguntado a la población respecto a los cuatro sindicatos mayoritarios del País Vasco, no han dado su aprobación (5 puntos en una escala de 0 a 10) a ninguno de ellos. Aún así, ELA-STV recibe la mejor valoración (con 4,4 puntos), le siguen LAB y CCOO (ambos con 3,9) y por último, UGT (con 3,7). Aunque las y los trabajadores asalariados los valoran mejor que quienes no lo son, ninguno de ellos ha conseguido el aprobado. Además, son algunos más quienes opinan que en los últimos cinco años, los cuatro sindicatos han empeorado su actuación que quienes creen que la han mejorado; esta opinión está aún más extendida entre las y los trabajadores asalariados, que han valorado a CCOO y UGT como los peores en este aspecto.

Por otro lado, el líder sindical más conocido por la ciudadanía vasca es Cándido Méndez, de UGT (un 52% le conoce) y el más desconocido es también de UGT, Dámaso Casado (33%). Sin embargo, las mejores valoraciones son recibidas por Joxe Elorrieta, de ELA-STV, y Rafa Diez, de LAB, aún cuando no reciben el aprobado de la ciudadanía. En general, las y los trabajadores asalariados conocen más que el resto a los líderes sindicales y las y los votantes de cada sindicato aprueban a los líderes de su propio sindicato.

### ***Nolakoak dira soldatapeko langileen lan baldintzak?***

Inkestako datuen arabera, EAEko soldatapeko langileen hiru laurdenek (%75) lan kontratu mugagabea dute, %22k aldi baterakoa eta soilik %3 kontraturik gabe ari da lanean. Langile gehienek (hamarretik zazpi edo gehiagok) ondoko lan baldintzak dituztela aitortu dute: lanaldi osoa egiten dute, astean 35 eta 45 ordu arteko lanaldia dute, soldata finkoa dute eta hilean 601€ eta 2.100€ arteko soldata garbia jasotzen dute. Alabaina, lan kontratu okerrenak (aldi baterakoak edo lan kontraturik ez) eta aurreko horiek baino lan baldintza eskasagoak dituzte emakumeek, gazteenek, enpresan urte gutxien daramatenek eta mikroenpresetan lan egiten dutenek. Sindikatuetan afiliaturik dauden gehienek kontratu eta lan baldintzak soldatapeko langileen batezbestekoaren mailan daude. Soldatapeko langileek batezbeste gaur egun duten lanarekiko 6,9 puntuko poztasuna adierazi dute (0tik 10erako eskalan).

### ***Nolakoak dira langileen ordezkartza eta lan harremanak lantokietan?***

Soldatapeko langileen %60k diote euren enpresetan nolabaiteko langileen ordezkartzarik (delegatua, enpresa edo langileen batzordea) badagoela eta herenak ez dagoela. La portzentaia berak dio bere enpresan edo sektorean dagoen lan hitzarmen edo itun kolektiboren batek eragiten diola eta hitzarmen horrekiko poztasun maila 5,2 puntukoa da (0tik 10erako eskalan). Bestalde, euren enpresan azken hamabi hilabeteetan langileen asanbladarik edo bilerarik izan dela diote ia langileen erdiek eta horien artean %69k diote joan direla bilera horietara. Gainera eta garai berean, lan arazoak direla eta soldatapekoen laurdenak ordezkari sindikalekin nolabaiteko harremanik izan dute. Sindikatuetan afiliaturik daudenek ez daudenek baino parte hartze eta harreman gehiago izan dituzte.

Enpresa mailako harremanei soldatapeko langileek oniritzia eman diete, bai zuzendaritza eta langileen arteko (6,1 puntu, 0tik 10erako eskalan), bai langileen eta ordezkari sindikalen arteko (5,8) eta baita, zuzendaritzaren eta ordezkari sindikalen arteko ere (5,3). Lehen bi harreman motekin afiliaturik dauden langileak afiliatu gabekoak baino kritikoagoak dira.

### ***Zer deritzote soldatapeko langileek sindikatu eta enpresarien arteko negoziazio gaiez, sindikatuen estrategia eta itun kolektiboez?***

Aurrez aurkeztu zaien zerrenda itxi batetik enpresari eta sindikatuen artean negoziatu beharreko gai nagusienaz galdetuta, soldatapeko langileek hauek aukeratu dituzte: soldata eta soldata-osagarriak (%61), laneko osasuna eta segurtasuna (%53), lanaldiaren erregulazioa (%39), lanpostuen balorazioa (%28), familia eta lan bizitza bateratzea (%22) eta sexuen arteko berdintasunaren

### ***¿Cómo son las condiciones de trabajo de las y los trabajadores asalariados?***

Según datos de la encuesta, tres cuartos de los trabajadores asalariados de la CAPV tienen un contrato de trabajo indefinido (75%), un 22% temporal o eventual y únicamente un 3% trabajan sin contrato. La mayoría de los trabajadores (siete o más de cada diez) dicen tener las siguientes condiciones de trabajo: trabajan a tiempo completo, con una jornada de 35 a 45 horas semanales, un sueldo fijo y un salario neto de 601€ a 2.100€ mensuales. Sin embargo, las mujeres, la juventud, quienes tienen la menor antigüedad en las empresas y quienes trabajan en microempresas presentan los peores contratos de trabajo (eventuales, temporales o trabajos sin contrato) y condiciones laborales más desfavorables a las anteriormente descritas. Los contratos y condiciones de trabajo de las y los afiliados en los sindicatos se sitúan en torno a la media de la población asalariada. Las y los asalariados muestran un nivel medio de satisfacción de 6,9 puntos con su trabajo actual (en una escala de 0 a 10).

### ***¿Cómo son la representación de los trabajadores y las relaciones laborales en la empresa?***

Un 60% de las y los trabajadores asalariados dicen que en sus empresas hay algún tipo de representación del personal (delegado, comité de empresa o comité de personal). Casi el mismo porcentaje afirma que en su empresa o sector hay un pacto o convenio colectivo que les afecta y el nivel de satisfacción con ese pacto es de 5,2 puntos (en una escala de 0 a 10). Por otro lado, casi la mitad de las y los trabajadores afirma que en su empresa ha habido asambleas o reuniones del personal durante los doce últimos meses y un 69% de ellos dice haber asistido. Además, en ese periodo, un cuarto de las y los asalariados han tenido relaciones con sus representantes sindicales debido a problemas laborales. Las y los afiliados a los sindicatos tienen una mayor participación y relación que los no afiliados.

Las y los trabajadores asalariados aprueban las relaciones que se establecen en la empresa, tanto las relaciones entre directivos y trabajadores (6,1 puntos, en una escala de 0 a 10), como entre trabajadores y representantes sindicales (5,8) o también, entre directivos y representantes sindicales (5,3). Las y los trabajadores afiliados son más críticos que los no afiliados con los dos primeros tipos de relación.

### ***¿Qué opinan las y asalariados de los temas de negociación entre sindicatos y empresarios, las estrategias sindicales y los pactos colectivos?***

Preguntados respecto a los principales temas de negociación entre empresarios y sindicatos, a elegir de un listado cerrado mostrado, las y los trabajadores asalariados



sustapena (%20).

Langileen %47ren ustez sindikatuak jarraitu beharreko lehenetsuneko estrategia gobernu eta patronalarekin akordioak bilatzea da eta %36ren ustez egitura sozial, ekonomiko eta politikoak eraldatzeko borroka egitea. Era berean, euren iritziak banaturik daude langileentzat komenigarriena den itun motaz galdetutakoan, honela: %39k enpresa mailakoak aipatu dituzte, %27k Euskadi mailako itun sektorialak, %11k lurralde mailako itun sektorialak eta beste horrenbestek estatu mailako itunak.

### ***Zeini ematen diete botoa hauteskunde sindikaletan eta zer deritzote batasun sindikalari buruz?***

Bere lantokian hauteskunde sindikalak izan ziren azken aldiaren soldatapeko langileen %66k diote ez zutela botorik eman, arrazoi bat edo beste dela medio, edo ez diote galderari erantzun. Botoa eman zutenak honela banatzen dira: ELAri eman ziotela botoa diote %40k, CCOOi %18k, LABi %17k, UGTri %12k eta beste sindikatu bati %13k.

Soldatapeko langileen hiru laurden (%73) sindikatuen artean aliantzak egitearen alde agertu dira eta horietatik gehienak (%63) sindikatu guztiak biltzea nahi luke; beste %17k ELA-LAB aliantza aipatu dute, %7k CCOO-UGT eta soilik %2k bestelakorik.

Sindikatuaren afiliaturik daudenen artean hauteskunde sindikaletako parte hartzea afiliaturik ez daudenena baino askoz altuagoa izan da eta bestalde, batasun sindikalaren aldekoak dira.

### ***Nolako da sindikatuaren afiliazioa?***

Inkestako datuetan oinarriturik soldatapeko langileen %29 gaur egun afiliatua dago, %56 inoiz ez da afiliaturik egon eta beste %12 orain ez dago baina noizbait egon da. Hala, afiliazioa honela banatzen da: %34 ELAn, %12 LABen, %19 CCOOen, %14 UGTn eta %13 besteetan. Horietako gehienek hiru eta bederatzirte artean daramate afiliaturik. Eta afiliaturik dauden soldatapeko langile gehienak norbere sindikatuaren barne funtzionamenduari gehienbat pozik daude, honela: %73 afiliatuentzako informazio mailarekin, %67 afiliatu eta sindikatuko buruzagien arteko elkarriketarekin eta azkenik, %61, sindikatuko erabakiak hartzerakoan eurek duten parte hartzearekin.

mencionan principalmente los siguientes: salario y complementos salariales (61%), salud y seguridad en el trabajo (53%), regulación de la jornada laboral (39%), valoración de puestos de trabajo (28%), conciliación de la vida familiar y laboral (22%) y promoción de la igualdad entre sexos (20%).

En opinión de un 47% de las y los trabajadores la estrategia prioritaria de los sindicatos debería ser la búsqueda de acuerdos con los gobiernos y la patronal y en opinión de un 36% la lucha para transformar las estructuras sociales, económicas y políticas. Del mismo modo, las opiniones están divididas respecto al tipo de pactos que consideran más convenientes para las y los trabajadores, así: un 39% mencionan los pactos a nivel de empresa, un 27% los pactos sectoriales a nivel de Euskadi, un 11% pactos a nivel sectorial provincial y otro tanto, pactos a nivel estatal.

### ***¿A quién votaron en las elecciones sindicales y qué opinan de la unidad sindical?***

Un 64% de las y los trabajadores asalariados dicen que no votaron en las últimas elecciones sindicales celebradas en su empresa, por uno u otro motivo, o no responden a la pregunta. Quienes votaron se distribuyen de la siguiente manera: un 40% dicen que votaron a ELA-STV, un 18% a CCOO, un 17% a LAB, un 12% a UGT y otro 13% a otro sindicato.

Tres cuartos de las y los trabajadores asalariados (73%) son partidarios de las alianzas entre sindicatos, y de ellos, la mayoría (un 63%) preferiría que se unieran todos los sindicatos; otro 17% mencionan la alianza ELA-LAB, un 7% la de CCOO-UGT y únicamente un 2% otras alianzas.

La participación en las elecciones sindicales es mucho más alta entre las y los afiliados a sindicatos que entre quienes no lo están y, por otro lado, las y los afiliados son más partidarios de la unidad sindical.

### ***¿Cómo es la afiliación en los sindicatos?***

Según datos de la encuesta, un 29% de las y los trabajadores asalariados están afiliados en la actualidad, un 56% no lo han estado nunca y un 12% no lo están ahora pero lo han estado alguna vez. Las y los afiliados se distribuyen así: un 34% a ELA-STV, un 12% a LAB, un 19% a CCOO, un 14% a UGT y un 13% a otros. La mayoría de ellos llevan afiliados entre tres y nueve años. Y la mayoría de las y los trabajadores asalariados afiliados están más bien de acuerdo con el funcionamiento interno de sus sindicatos, así: un 73% con el nivel de información a los afiliados, un 67% con el diálogo entre afiliados y dirigentes sindicales y, por último, un 61%, con la participación en la toma de decisiones.

Bestalde, sindikatuetan afiliatzeko aipatu dituzten arrazoi nagusienak (aukeratzeko zerrenda itxi batetik) ondokoak dira: nire enpresako ordezkari sindikalengan konfiantza dudalako (%35), gertutasun ideologikoagatik (%34), afiliaturik egoteak dituen lan abantailengatik (%24), bere afiliatuei eskaintzen dizkien lege zerbitzuengatik (%21) eta nire enpresan gehiengoa duen sindikatua delako (%20).

### ***Nolakoak dira ez afiliatzeko arrazoiak eta ez afiliatuen sindikatuekiko begikotasuna?***

Sindikaturen batean afiliaturik ez dauden soldatapeko langileek afiliaturik ez egoteko arrazoi nagusizat ondokoak aipatu dituzte: ez dudalako hortaz inoiz pentsatu (%53) eta nire enpresan ez dagoelako jarduera sindikalik (%22).

Edozelan, afiliaturik ez daudenei zein sindikatu duten gustukoan edo hurbilen galdetu zaienean honela erantzun dute: %19k ELA, %10ek LAB, %12k CCOO, %8k UGT eta %9k besteren bat.

Por otro lado, las principales razones mencionadas para afiliarse a los sindicatos (a elegir de un listado cerrado) son las siguientes: porque confío en los representantes sindicales de mi empresa (35%), por cercanía ideológica (34%), por las ventajas laborales de estar afiliado (24%), por los servicios jurídicos que ofrece a sus afiliados (21%) y porque es el sindicato mayoritario en mi empresa (20%).

### ***¿Cuáles son las razones para no afiliarse y cómo es la simpatía sindical de los no afiliados?***

Las y los trabajadores asalariados que no están afiliados a ningún sindicato han mencionado principalmente los siguientes motivos para ello: porque no me lo he planteado nunca (53%) y porque en mi empresa no hay actividad sindical (22%).

En cualquier caso, al preguntar a las y los trabajadores no afiliados cuál es el sindicato por el que sienten más simpatía o consideran más cercano, han respondido así: un 19% ELA-STV, un 10% LAB, un 12% CCOO, un 8% UGT y un 9% algún otro.

## A - Sindikalgintzari buruzko iritzi orokorrak / *Opiniones generales sobre el sindicalismo*


- Erakundeekiko konfiantza / *Confianza en instituciones*
- Sindikatuei buruzko iritzi orokorrak / *Opiniones generales respecto a los sindicatos*
- Sindikatuekiko begikotasuna / *Simpatía por los sindicatos*
- Sindikatuen bilakaera / *Evolución de los sindicatos*
- Buruzagi sindikalen ezagutza eta balorazioa /  
*Conocimiento y valoración de líderes sindicales*

## Sindikalgintzari buruzko iritzi orokorrak / Opiniones generales sobre el sindicalismo

### Erakundeekiko konfiantza / Confianza en instituciones

(Gutuzkoak eta bil akaera / Totales y evolución)

Aipatuko dizkizudan instituzio bakoitzarekiko, esadazu, mesedez, gehienbat konfiantza duzun ala gehienbat konfiantzarik ez duzun. / A continuación me gustaría preguntarle acerca de la confianza que Ud. tiene en ciertas instituciones. Para cada una de ellas, dígame, por favor, si tiende Ud. a confiar o tiende Ud. a no confiar.



\* 1999AN ETA 2002AN ENPRESA HANDIEZ GALDETU ZEN / EN 1999 Y 2002 SE PREGUNTABA POR LAS GRANDES EMPRESAS

\*\* 2007 ARTE ELIZAZ, ORO HAR, GALDETZEN ZEN / HASTA 2007 SE PREGUNTABA POR LA IGLESIA, EN GENERAL

EAEko herritarren %43k dute sindikatuengan konfiantza, azken neurketan baino pixka bat gutxiagok baina ohikoak izan diren kopuruaren inguruan. Alabaina, konfiantza handiena sortzen duten erakundeak Eusko Jaurlaritz, Eusko Legebiltzarra eta Gobernuz Kanpoko Erakundeak izaten jarraitzen dute. Aldiz, Espainiako Gotzain-Konferentzia, ejertzitza eta alderdi politikoak dira konfiantzarik gutxiena sortzen dutenak.

Un 43% de la población de la CAPV tienen confianza en los sindicatos, ligeramente menos que en la última medición pero en porcentajes similares a los que han sido habituales. Las instituciones en las que más confía la gente siguen siendo el Gobierno Vasco, el Parlamento Vasco y las Organizaciones No Gubernamentales. En cambio, en las que menos confía son la Conferencia Episcopal Española, el Ejército y los partidos políticos.

## Sindikalgintzari buruzko iritzi orokorrak / Opiniones generales sobre el sindicalismo

### Erakundeekiko konfiantza / Confianza en instituciones

(Kol ektiboka I / Por colectivos I)

Aipatuko dizkizudan instituzio bakoitzarekiko, esadazu, mesedez, gehienbat konfiantza duzun ala gehienbat konfiantzarik ez duzun. / A continuación me gustaría preguntarle acerca de la confianza que Ud. tiene en ciertas instituciones. Para cada una de ellas, dígame, por favor, si tiende Ud. a confiar o tiende Ud. a no confiar.

GEHIENBAT KONFIANTZA DUTENEN EHUNEKOA PORCENTAJE DE QUIENES TIENDEN A CONFIAR	2007KO URRIA OCTUBRE 2007	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				BEGIKOTASUN POLITIKOA SIMPATÍA POLÍTICA									
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	EAJ/ PNV	PSE- EE	PP	EHAKE	EA	EB	ARALAR	BAT ERE EZ NINGUNO	DENAK BERDIN TODOS POR IGUAL	Ed-Ee Ns-Nc
EUSKO JAURLARITZA / EL GOBIERNO VASCO.....	64	69	63	64	64	65	62	61	66	69	85	72	53	47	83	58	70	44	55	63
EUSKO LEGBILTZARRA / EL PARLAMENTO VASCO.....	61	64	61	59	61	60	55	58	64	65	83	67	48	42	81	59	68	38	49	61
GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK (GKE) / LAS ONGS.....	61	66	58	65	62	61	67	60	61	57	64	64	62	59	57	70	66	56	56	59
EUOPAR BATASUNA (EB) / LA UNIÓN EUROPEA (UE).....	51	56	52	48	53	50	53	47	52	53	56	66	73	31	58	53	44	36	41	50
ENPRESAK / LAS EMPRESAS .....	50	48	45	61	53	48	46	47	54	56	57	55	66	38	50	51	46	39	46	53
SINDIKATUAK / LOS SINDICATOS .....	43	44	41	45	43	43	52	47	39	31	43	52	35	56	45	50	48	32	37	42
NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (NBE) / ORGANIZACIÓN DE NACIONES UNIDAS (ONU) .....	43	49	43	41	45	42	49	41	44	39	45	59	65	25	39	42	44	32	34	41
HEDABIDEAK / LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN.....	41	35	39	46	38	43	33	38	41	54	43	53	49	21	39	33	32	31	44	48
JUSTIZIA / LA JUSTICIA.....	40	46	39	39	38	42	42	41	40	36	40	56	50	13	35	46	26	34	38	44
EUSKAL ELIZA / LA IGLESIA VASCA .....	31	32	29	34	29	34	15	23	32	60	43	34	38	12	34	14	25	24	35	32
ALDERDI POLITIKOAK / LOS PARTIDOS POLÍTICOS .....	23	25	22	25	23	23	16	20	26	33	32	32	30	19	28	21	23	7	19	22
EJERZITOA / EL EJÉRCITO .....	21	28	20	20	20	22	20	19	19	28	14	35	61	5	7	10	9	16	24	22
ESPAINIAKO GOTZAIN-KONFERENTZIA / LA CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA.....	17	21	17	17	15	20	9	12	17	35	19	22	45	2	11	8	7	14	27	15

Beste erakunde gehienekin gertatzen denaren aurka, zenbat eta zaharrago izan, sindikatuen ganako konfiantza gutxitzen da.

Bestalde, ezkerreko alderdien jarraitzaileek (EHAK, PSE-EE, EB eta Aralarrenek) gainontze-koek baino konfiantza handiagoa dute sindikatuengan.

En contra de lo que ocurre con respecto a la mayoría de las instituciones, a medida que asciende la edad, disminuye la confianza en los sindicatos.

Por otro lado, las y los simpatizantes de los partidos de izquierda (EHAK, PSE-EE, EB y Aralar) confían más que el resto en los sindicatos.

## Sindikalgintzari buruzko iritzi orokorrak / Opiniones generales sobre el sindicalismo

### Erakundeekiko konfiantza / Confianza en instituciones

(Kol ektiboka II / Por colectivos II)

Aipatuko dizudan instituzio bakoitzarekiko, esadazu, mesedez, gehienbat konfiantza duzun ala gehienbat konfiantzarik ez duzun. / A continuación me gustaría preguntarle acerca de la confianza que Ud. tiene en ciertas instituciones. Para cada una de ellas, dígame, por favor, si tiende Ud. a confiar o tiende Ud. a no confiar.

GEHIENBAT KONFIANTZA DUTENEN EHUNEKOA PORCENTAJE DE QUIENES TIENDEN A CONFIAR	2007KO URRIA OCTUBRE 2007	SOLDATAPEKOA ASALARIADO/A		HAUTESKUNDE SINDIKALETAKO BOTO OROIMENA * RECUERDO DE VOTO EN ELECCIONES SINDICALES						
		Bai Sí	Ez No	ELA/STV	LAB	CCOO	UGT	BESTE BAT OTRO	Ez ZUEN BOTOA EMAN No VOTÓ	Ed/Ee Ns-/Nc
EUSKO JAURLARITZA / EL GOBIERNO VASCO.....	64	64	64	81	54	74	61	59	61	66
EUSKO LEGBILTZARRA / EL PARLAMENTO VASCO.....	61	61	60	76	51	73	64	66	57	59
GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK (GKE) / LAS ONGs.....	61	64	59	63	62	70	63	68	64	66
EUROPAR BATASUNA (EB) / LA UNIÓN EUROPEA (UE).....	51	51	51	55	32	57	49	59	51	53
ENPRESAK / LAS EMPRESAS.....	50	50	50	56	44	50	37	46	51	48
SINDIKATUAK / LOS SINDICATOS.....	43	48	40	57	51	51	49	41	46	50
NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (NBE) / ORGANIZACIÓN DE NACIONES UNIDAS.....	43	43	43	42	23	44	48	45	45	45
HEDABIDEAK / LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN.....	41	37	43	42	27	36	56	34	36	34
JUSTIZIA / LA JUSTICIA.....	40	41	39	40	9	50	42	38	43	43
EUSKAL ELIZA / LA IGLESIA VASCA.....	31	23	36	23	21	23	17	22	22	32
ALDERDI POLITIKOAK / LOS PARTIDOS POLÍTICOS.....	23	23	24	37	14	24	35	15	20	22
EJERZITOA / EL EJÉRCITO.....	21	17	23	13	3	19	15	8	20	22
ESPAINIAKO GOTZAIN-KONFERENTZIA / LA CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA.....	17	11	21	9	4	9	3	12	13	17


\* HAUTESKUNDE SINDIKALETAKO BOTO OROIMENAZ SOILIK SOLDATAPEKO LANGILEEI GALDETU ZAIE ETA EZ HERRITAR GUZTIEI / ÚNICAMENTE SE PREGUNTÓ A LAS Y LOS TRABAJADORES ASALARIADOS RESPECTO AL RECUERDO DE VOTO EN ELECCIONES SINDICALES Y NO A TODA LA POBLACIÓN

- Soldatapeko langileak direnek ez direnek baino konfiantza gehiago dute sindikatuengan.
- Sindikatuengan konfiantzarik altuena ELAren boto emaileek adierazi dute. Izatez, lau sindikatu nagusien botoemaleek gainerakoek baino konfiantza handiagoa adierazi dute sindikatuengatik.

- Las y los trabajadores asalariados confían más en los sindicatos que quienes no son asalariados.
- Las y los votantes de ELA-STV son quienes más confían en los sindicatos. De hecho, los votantes de los cuatro sindicatos principales tienen más confianza en los sindicatos que el resto.

## Sindikalgintzari buruzko iritzi orokorrak / Opiniones generales sobre el sindicalismo

Erakundeekiko konfiantza / Confianza en instituciones  
(Europar Batasunarekiko alderaketa / Comparación con la Unión Europea)



European Commission (2007): "Eurobarometer 66". Europako datuak 2006ko iraila eta urrikoak dira eta 15 urtetik gorako biztanleriari dagozkie. / Los datos europeos son de septiembre y octubre de 2006 y corresponden a la población de 15 y más años.

EAEko herritarrek Europar Batasuneko herritarren batez bestekoak baino pixka bat konfiantza handiagoa dute sindikatuengan, Estonia, Suedia, Grezia eta Portugalgo herritarren antzeko konfiantza mailarekin.

Las y los ciudadanos de la CAPV confían ligeramente más que la media de la Unión Europea en los sindicatos, con niveles de confianza similares a la población de Estonia, Suecia, Grecia y Portugal.

## Sindikalgi buruzko iritzi orokorrak / Opiniones generales sobre el sindicalismo


## Sindikatuei buruzko iritzi orokorrak / Opiniones generales respecto a los sindicatos

(Guztizkoak / Totales)

**Orain sindikatuei buruz hitz egingo dugu. Jendeak iritzi desberdinak ditu haiekiko. Esango al didazu ondoko bakoitzarekiko gehienbat ados ala gehienbat kontra zauden? / A continuación vamos a pasar a hablar de los sindicatos. La gente tiene opiniones distintas sobre ellos. ¿Me puede decir si está Ud. más bien de acuerdo o más bien en desacuerdo con cada una de las siguientes afirmaciones?**

GEHIENBAT ADOS DAUDENEN EHUNEKOA PORCENTAJE DE QUIENES ESTÁN MÁS BIEN DE ACUERDO	2007KO URRIA OCTUBRE 2007
SINDIKATUAK EMAKUMEEN BERTINTASUNAREN ALDE GEHIAGO INPLIKATU BEHAR DIRA / LOS SINDICATOS DEBEN IMPLICARSE MÁS EN LA PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD DE LAS MUJERES .....	88
SINDIKATUEK ELKARTURIK LAN EGIN BEHAR DUTE / LOS SINDICATOS DEBEN TRABAJAR UNIDOS .....	83
SINDIKATUAK ALDERDI POLITIKOENKIKO INDEPENDENTEAK IZAN BEHAR DIRA / LOS SINDICATOS DEBEN SER INDEPENDIENTES DE LOS PARTIDOS POLÍTICOS .....	80
SINDIKATUAK GEHIAGO INPLIKATU BEHAR DIRA ARRAZISMOAREN AURKAKO KANPAINETAN / LOS SINDICATOS DEBEN IMPLICARSE MÁS EN LAS CAMPAÑAS EN CONTRA DEL RACISMO .....	78
SINDIKATUEI ESKER, LANGILEEK EUREN LAN BALDINTZAK HOBETZEA LORTU DUTE / GRACIAS A LOS SINDICATOS, LOS TRABAJADORES HAN LOGRADO UNA MEJORA DE SUS CONDICIONES DE TRABAJO .....	70
AZKEN URTEETAN, SINDIKATUEK LAN BALDINTZAK DEFENDATZEKO GAITASUNA GALDU DUTE / DURANTE LOS ÚLTIMOS AÑOS, LOS SINDICATOS HAN PERDIDO CAPACIDAD EN LA DEFENSA DE LAS CONDICIONES DE TRABAJO .....	58
SINDIKATUAK SOILIK SOLDATEZ ETA LAN BALDINTZEZ ARDURATZEN DIRA / LOS SINDICATOS SÓLO SE PREOCUPAN POR LOS SUELDOS Y LAS CONDICIONES DE TRABAJO .....	48
SINDIKATUEK SOILIK EUREN AFILIATUAK DEFENDATZEN DITUZTE / LOS SINDICATOS DEFIENDEN SÓLO A SUS AFILIADOS .....	47
SINDIKATURIK GABE EZIN DA DEMOKRAZIARIK EGON / SIN SINDICATOS NO PUEDE HABER DEMOCRACIA .....	35
SINDIKATUEK SOILIK LANGILE FINKOAK DEFENDATZEN DITUZTE / LOS SINDICATOS DEFIENDEN SÓLO A LOS TRABAJADORES FIJOS .....	30
SINDIKATUEK EZ DUTE EZERTARAKO BALIO / LOS SINDICATOS NO SIRVEN PARA NADA .....	19

## Sindikatuei buruzko iritzi orokorrak / Opiniones generales respecto a los sindicatos



Herritarren gehiengo gehienbat ados dago sindikatuek emakumeen berdintasunaren alde gehiago inplikatu behar direla (%88), elkarturik lan egin behar dutela (%83), alderdi politikoekiko independenteak izan behar direla (%80) eta arrazismoaren kontrako kanpainen gehiago inplikatu behar direla (%78) esaterakoan. % 70ek sindikatuei esker langileek lan baldintzak hobetzea lortu dutela diote eta %58k, azken urteetan, lan baldintzak defendatzeko gaitasuna galdu dutela.

Aldiz, jendearen erdia baino gutxiago dago ados sindikatuei buruzko ondoko baieztapenekin: soilik soldatez eta lan baldintzez arduratzen dira (%48), soilik euren afiliatuak defendatzen dituzte (%47), beraiek gabe ezin da demokraziarik egon (%35), soilik langile finkoak defendatzen dituzte (%30) eta azkenik, ez dute ezertarako balio (%19).

La mayoría de la ciudadanía está más bien de acuerdo con que los sindicatos deben implicarse más en la promoción de la igualdad de las mujeres (88%), deben trabajar unidos (83%), deben ser independientes de los partidos políticos (80%) y deben implicarse más en las campañas en contra del racismo (78%). Un 70% creen que gracias a los sindicatos, las y los trabajadores han logrado una mejora de sus condiciones de trabajo y un 58% que, en los últimos años, han perdido capacidad en la defensa de las condiciones de trabajo.

En cambio, menos de la mitad de la gente está de acuerdo con las siguientes afirmaciones respecto a los sindicatos: sólo se preocupan por los sueldos y las condiciones de trabajo (48%), defienden sólo a sus afiliados/as (47%), sin ellos no puede haber democracia (35%), defienden sólo a los trabajadores fijos (30%) y, por último, no sirven para nada (19%).



## Sindikalgintzari buruzko iritzi orokorrak / Opiniones generales sobre el sindicalismo

### Sindikatuei buruzko iritzi orokorrak / Opiniones generales respecto a los sindicatos

(Kol ektiboka | / Por colectivos |)

**Orain sindikatuei buruz hitz egingo dugu. Jendeak iritzi desberdinak ditu haiekiko. Esango al didazu ondoko bakoitzarekiko gehienbat ados ala gehienbat kontra zauden? / A continuación vamos a pasar a hablar de los sindicatos. La gente tiene opiniones distintas sobre ellos. ¿Me puede decir si está Ud. más bien de acuerdo o más bien en desacuerdo con cada una de las siguientes afirmaciones?**

GEHIENBAT ADOS DAUDENEN EHUNEKOA PORCENTAJE DE QUIENES ESTÁN MÁS BIEN DE ACUERDO	2007KO URRIA OCTUBRE 2007	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65
SINDIKATUAK EMAKUMEEN BERDINTASUNAREN ALDE GEHIAGO INPLIKATU BEHAR DIRA / LOS SINDICATOS DEBEN IMPLICARSE MÁS EN LA PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD DE LAS MUJERES .....	88	89	89	86	89	87	90	91	90	80
SINDIKATUEK ELKARTURIK LAN EGIN BEHAR DUTE / LOS SINDICATOS DEBEN TRABAJAR UNIDOS .....	83	85	82	84	84	83	83	87	85	75
SINDIKATUAK ALDERDI POLITIKO EKIKO INDEPENDENTEAK IZAN BEHAR DIRA / LOS SINDICATOS DEBEN SER INDEPENDIENTES DE LOS PARTIDOS POLÍTICOS .....	80	83	80	79	84	77	79	85	85	70
SINDIKATUAK GEHIAGO INPLIKATU BEHAR DIRA ARRAZISMOAREN AURKAKO KANPAINETAN / LOS SINDICATOS DEBEN IMPLICARSE MÁS EN LAS CAMPAÑAS EN CONTRA DEL RACISMO .....	78	84	76	78	80	75	84	79	79	67
SINDIKATUEI ESKER, LANGILEEK EUREN LAN BALDINTZAK HOBETZEA LORTU DUTE / GRACIAS A LOS SINDICATOS, LAS Y LOS TRABAJADORES HAN LOGRADO UNA MEJORA DE SUS CONDICIONES DE TRABAJO .....	70	71	69	70	69	70	74	75	67	61
AZKEN URTEETAN, SINDIKATUEK LAN BALDINTZAK DEFENDATZEKO GAITASUNA GALDU DUTE / DURANTE LOS ÚLTIMOS AÑOS, LOS SINDICATOS HAN PERDIDO CAPACIDAD EN LA DEFENSA DE LAS CONDICIONES DE TRABAJO .....	58	53	60	55	65	51	49	61	67	49
SINDIKATUAK SOILIK SOLDATEZ ETA LAN BALDINTZEZ ARDURATZEN DIRA / LOS SINDICATOS SÓLO SE PREOCUPAN POR LOS SUELDOS Y LAS CONDICIONES DE TRABAJO .....	48	46	50	45	50	46	44	49	51	49
SINDIKATUEK SOILIK EUREN AFILIATUAK DEFENDATZEN DITUZTE / LOS SINDICATOS DEFIENDEN SÓLO A SUS AFILIADOS/AS .....	47	45	49	44	50	43	46	47	52	41
SINDIKATURIK GABE EZIN DA DEMOKRAZIARIK EGON / SIN SINDICATOS NO PUEDE HABER DEMOCRACIA .....	35	35	37	30	37	33	35	36	35	33
SINDIKATUEK SOILIK LANGILE FINKOAK DEFENDATZEN DITUZTE / LOS SINDICATOS DEFIENDEN SÓLO A LOS TRABAJADORES FIJOS/AS .....	30	29	31	28	32	27	27	30	32	30
SINDIKATUEK EZ DUTE EZERTARAKO BALIO / LOS SINDICATOS NO SIRVEN PARA NADA .....	19	18	20	16	21	17	11	19	23	20

Arabarrek besteek baino adostasun handiagoa adierazi dute sindikatuak gehiago inplikatu behar direla arrazismoaren aurkako kanpainen eta beraiek gabe ezin dela demokraziarik egon dioten baieztapenekin (azkena bizkaitarrekin batera). Bizkaitarrek gainontzekoek baino adostasun pixka bat gehiago adierazi dute ondoko esaldiekiko: azken urteetan, lan baldintzak defendatzeko gaitasuna galdu dute; soilik soldatez eta lan baldintzez arduratzen dira eta soilik euren afiliatuak defendatzen dituzte.

Gizonek emakumeek baino adostasun handiagoa agertu dute, oro har, baieztapen guztiekiko. Alabaina, aldea esanguratsua da ondokoekiko: sindikatuak alderdi politikoeikiko independenteak izan behar dira; arrazismoaren aurkako kanpainen gehiago inplikatu behar dira; azken urteetan, lan baldintzak defendatzeko gaitasuna galdu dute, soilik euren afiliatuak defendatzen dituzte eta soilik langile finkoak defendatzen dituzte.

Oro har, 65 urtez azpikoek gorakoek baino adostasun maila altuagoa adierazi dute baieztapen gehienekiko. Hala ere, 29 urteik gorako guztien artean daude hedatuago ondoko iritziak: sindikatuak soilik soldatez eta lan baldintzez arduratzen dira, soilik langile finkoak defendatzen dituzte eta sindikatuak ez dute ezertarako balio.

